



## Madalenako eskolia

**G**aribai auzoko lurretan jasota egon arren, puntura arte **Madalenako eskolia** esaten xakon orain **Bikoitz** jatetxia danari. Errekiak erabagitten dau hor mugia eta ezkerraldia Santxolopetegi edo Madalena auzua da eta eskumaldia Garibai. XIX. gizaldiko 1878. urtian egin zan ikastetxe horretara hiru auzotako umiak faten ziran: lehen aittatu dittugun bixetakuaz gain, Zubillagakuak be bai, orduan Zañarturaifño beste eskolarik ez eguen-eta. Inguru horreittako makiña bat neskatilla-mutiko pasau zan, 1970 aldera itxi zan arte. Gaurko argazkixan 1920ko hamarkadiaren erdialdeko urtietan ebiltzen ikasliak dakartzuegu: Doña **Josefa Gastesi** (?) edo **Maistra zaharra** ezizena eukanaren aginduetara ikasten zihardutenak. Fotografixia eskola onduan atarata dago eta umiekin batera Migeleneko Frantzisko agiri da bere idi-pare eta bolantiarekin. Atzerago Madalenako ermittia eta orain dala urte batzuk, gaitzak jota eguelako, bota bihar izan zan arte ederra. Goittik behera eta ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue argazkixan agiri diranak:

**1. illaran, goixenian:** **Pedro Irizar**, Martezko haundikua; **Migel Aeta**, Martezko txikiñekua; **Felix Unzurrunzaga**, Forjetako etxietakua; atzian, **Frantzisko Urzelai**, Migelen txikiñeko aitta; horren aurrian, **Anastasio Anduaga**, Zelaieta txikiñekua; **Juan Arrizabalaga**, Arretxe behekua; **Santi Ugarte**, Zubillagako Olakua; **Joxe Mari Letamendi**, Mirafloreskua; **Martxelin Urizabel**, Forjetako etxietakua; **Felisa Unzurrunzaga**, Forjetako etxietakua; **Urbana Anduaga**, Baketxekua; **Maria Anduaga**, Zelaieta txikiñekua; **Kattalin Guridi**, Narbaixena; **Narzisa Letamendi**, Mirafloreskua; **Maritxu Urizabel**, Forjetako etxietakua; eta **Josefa Gastesi** (?), "Maistra zaharra".

**2. illaran:** **Joxe Anduaga**, Baketxekua; **Meliton Erostege**, Kortazarkua; **Alberto Altuna** Zubillagako Errotakua; **Petri Ugarte**, Zubillagako Olakua; **Bixi Aiastui**, Askazubikua; **Maria Urzelai**, Migelen txikiñekua; **Maxima Elorza**, Garibarrenekua; **Benita Igartua**, Arretxe behekua; **Kaietana Aeta**, Martezko txikiñekua; **Guadalupe Mendizabal**, Zubillaga Garaikua; **Juli Urzelai**, Migelen txikiñekua; **Maria Agirre**, Alkortakua; **Juli Aiastui**, Askazubikua; eta **Kattalin Arrazola**, Antuen haundikua.

**3. illaran:** **Luxio Erostege**, Kortazarkua; **Julian Alzelai**, Juliangua; **Santi Unzurrunzaga**, Forjetako etxietakua; **Karmen Altuna**, Zubillagako Errotakua; **Jesusa Igarzabal**, Forjetako etxietakua; **Maria Irizar**, Martezko haundikua; **Juanita Elortondo** (?), Mikelezkuan eguen illobia; **Kandida Anduaga**, Zelaieta txikiñekua; **Maria Elorza**, Garibarrenekua; **Pilar Arrazola**, Antuen haundikua; **Laurita Altuna**, Zubillagako Errotakua; **Euxebi Arza**, Zubillaga Azpiko txikiñekua; **Emilia Martínez de Albeniz**, Zubillagako Tabernako illoba arabarra; **Margarita** (?) **Unzurrunzaga**, Forjetako etxietakua, **Joxe Mari Letamendi**; Bedoñakua; eta **Marixtu Billar**, Arretxe haundikua.

**4. illaran, behian:** **Anjel Anduaga**, Baketxekua; **Xabin Maiztegi**, Plazentziakua, Migelen haundikuan eguen illobia; **Txomin Arrazola**, Antuen haundikua; **Rufina Ugarte**, Zubillagako Olakua; **Axunzion Anduaga**, Zelaieta txikiñekua; **Norberto Urzelai**, Migelen txikiñekua; **Kandido Urzelai**, Migelen txikiñekua; **Xexari Arrizabalaga**, Arretxe behekua; **Joxe Mari Arrazola**, Antuen haundikua; **Maritxu Arrizabalaga**, Arretxe txikiñekua; **Elena Unzurrunzaga**, Forjetako etxietakua; **Eulali Irizar**, Martezko haundikua; **Dominga Letamendi**, Mirafloreskua; eta **Santi Guridi**, Narbaixenekua.

J. E.

Fotografixia Petri Ugartek itzittakua da. Argibidiak, berriz, Petrik berak ez ezik, Joxe Urzelai, Alberto Altuna, Jexus Urzelai, Xabier Zelaia, Manttoni Galdos eta Jerardo Agirrek be eskuratu doskue. Milla esker danoiri!